

## 8. HEZKUNTZA BATZORDEAREN AKTA

**NOIZ:** 2013ko urtarrilaren 31n  
**ORDUA:** 17:00  
**NON:** Baztango Udaletxeko bilera gelan

### BERTARATUAK:

Jasone Altxu(Ikastola)  
Maite Iturralde (Ikastola)  
Ane Gaztelumendi(San Francisco Javier)  
Itziar Bidegain (San Francisco Javier)  
Enara Aranburu (Amaiurko eskola)  
Kristina Goñi (Baztango Haur eskola)  
Maite Ariztegi (Lanbide Eskola)  
Iñaki Beltran (Lekarozko Institutua)  
Idoia Goñi (San Francisco Jabier → Guraso Elkartea)  
Xabi Ballarena (Oronozko eskola)  
Maider Azkarate (Haur Eskolako Guraso Elkartea)  
Oier Usandizaga (Haur Eskolako Guraso Elkartea)  
Maite Erize (Iruritako Guraso Elkartea)  
Idoia Argain (Iruritako Guraso Elkartea)  
Idoia Bidegain (Erratzuko Ertzun Elkartea)  
Marian Migeltorena (Erratzuko Ertzun Elkartea)  
Maitane Maritorea (Bildu)  
Maite Oteiza (Bildu)

### GAI ORDENA:

- ⇒ Aitzineko akta onestea.
- ⇒ Guraso eskola
- ⇒ Materialerako sosa
- ⇒ Eskoletako jantokiak
- ⇒ Aurrematrikulazioa
- ⇒ Ikastolako lan poltsa
- ⇒ Lan taldeak sortzearen proposamena
- ⇒ Musika eskola.
- ⇒ Bertsolaritza eskolan.
- ⇒ Euskara ikasgaitik salbuetsiak
- ⇒ Apustu energetikoa "aipamen

## 8. ACTA DE LA COMISIÓN DE EDUCACIÓN

**FECHA:** 31 de enero de 2013  
**HORA:** 17:00  
**LUGAR:** En la sala de reuniones del Ayuntamiento de Baztan

### ASISTENTES:

Jasone Altxu(Ikastola)  
Maite Iturralde (Ikastola)  
Ane Gaztelumendi(San Francisco Javier)  
Itziar Bidegain (San Francisco Javier)  
Enara Aranburu (Escuela de Amaiur)  
Kristina Goñi (Escuela Infantil de Baztan)  
Maite Ariztegi (Escuela Profesional)  
Iñaki Beltran (Instituto de Lekaroz)  
Idoia Goñi (San Francisco Jabier → Apyma)  
Xabi Ballarena (Escuela de Oronoz)  
Maider Azkarate Apyma de Escuela Infantil)  
Oier Usandizaga (Apyma de Escuela Infantil)  
Maite Erize (Apyma de Irurita)  
Idoia Argain (Apyma de Irurita)  
Idoia Bidegain (Asociación Ertzun de Erratzu)  
Marian Migeltorena (Asociación Ertzun de Erratzu)  
Maitane Maritorea (Bildu)  
Maite Oteiza (Bildu)

### ORDEN DEL DÍA:

- ⇒ Aprobación del acta anterior.
- ⇒ Escuela de Padres y Madres
- ⇒ Dinero para material
- ⇒ Comedores escolares
- ⇒ Prematriculación
- ⇒ Bolsa de trabajo de la Ikastola
- ⇒ Propuesta para la creación de grupos de trabajo
- ⇒ Escuela de Música.
- ⇒ Bertsolarismo en la escuela.

berezia”

- ⇒ Eskolen gasolio gastuak (atxikitako datua)
- ⇒ Lore jokoak
- ⇒ Euskal artzainak Ameriketan: panelak eta hizlariak
- ⇒ Murrizketak: prentsa oharra.
- ⇒ Galde eskeak

**AITZINEKO AKTA** aho batez onartu da. Maite Oteizak Erratzuko Eskolan Eskola Kontseilua zuela eta, Maitane Maritorea hasi da gai ordenarekin berari dagozkion puntuak azaltzen:

**BERTSOLARITZA ESKOLAN** Aitzineko Hezkuntza Batzordean San Frantzisko Xabier ikastetxeok galdetu zuten ea zergatik gelditu zen beren ikastetxea bertsolaritza eskolan egitasmotik kanpo. Maitanek erantzun zien Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehendakariarekin egindako bilkuran hark erran zuela San Frantzisko Ikastetxeak ez zuela eskaerarik egin.

Zalantza argitu da, Elizondoko Eskolakoek biharamunean berean deitu baitzuten ez zutela eskaerarik egin erranez.

**EUSKARA IKASGAIK SALBUETSIK:** 7. Hezkuntza Batzordean Lekarozko ordezkaritza falta zela eta, gaia gaur tratatu da. Lehen Hezkuntza zona vascofonatik kanpo egin duten ikasleek salbuespena eskatzen ahal dutela jakinik (euskara orduetan klaserik ez ematea alegia), aztertu beharko da eskaera egiten dutenak noiztik dauden hemen. Izan ere, Elizondoko eskolan salbuespena eskatzen ez dutenek Lekarozen eskatu egiten baitute; hortaz, Elizondoko Eskolaren eta Lekarozko institutuaren arteko elkarlana bulkatzea beharrezkoa ikusi da. Horrez gain, Udaletxea lanean ari da etorkinekin proiekturen bat egin ahal izateko, euskararen mundurat hurbiltzeko.

**APUSTU ENERGETIKOA:** laz Baztango Eskola guztiek parte hartu zuten CRANAK proposatutako apustu energetikoan. Apustu horretan aipamen berezia izan dute Baztan

- ⇒ *Eximidos de la asignatura euskera*
- ⇒ *Apuesta energética: “mención especial”*
- ⇒ *Gastos de gasoil de las escuelas (dato adjuntado)*
- ⇒ *Juegos Florales*
- ⇒ *Pastores Vascos en América: paneles y conferenciantes*
- ⇒ *Recortes: nota de prensa.*
- ⇒ *Ruegos y preguntas*

**EL ACTA ANTERIOR** se aprueba por unanimidad.

*Dado que Maite Oteiza tenía reunión del Consejo Escolar en las escuelas de Erratzu, Maitane Maritorea ha comenzado con el orden del día comentando los puntos que le corresponden:*

**BERTSOLARISMO EN LA ESCUELA** *En la anterior reunión de la Comisión de Educación, los representantes del centro San Frantzisko Xabier preguntaron por qué se había quedado fuera su centro de enseñanza del programa Bertsolarismo en la Escuela. Maitane les contestó que en la reunión mantenida con el presidente de la Asociación Nafarroako Bertsozale Elkartea les manifestó que el centro San Frantzisko no había realizado la solicitud.*

*La duda se ha aclarado, dado que al día siguiente se llamó desde la escuela de Elizondo para decir que no se había efectuado la solicitud.*

**EXIMIDOS DE LA ASIGNATURA EUSKERA:** *Al no estar presentes en la reunión anterior de la Comisión de Educación la representación de Lekaroz, el tema se ha tratado en la presente sesión. Conociendo que el alumnado que ha cursado Educación Primaria fuera de la llamada zona vascofona puede solicitar la dispensa (que durante las clases de euskera no reciban clase), se tendrá que analizar desde cuando están aquí los y las solicitantes, ya que quién no solicita la dispensa en la escuela de Elizondo, lo hace en Lekaroz; por lo tanto, se ve necesario*

Ikastolak eta Elizondoko Eskolak.

**ESKOLEN GASOLIO GASTUAK:** Informazio gisa, eskola bakoitzak 2011n gastatu zuen gasolio litro kopurua eta telefono faktura igorri zen eskola guztietarat.

Haur eskolako faktura handia dela ikusirik, Maitek azalpenak eman ditu gaizki ulerturik ez izateko. Izan ere, Haur Eskolan oinarritzko tarifa 80€ da, nahiz haiek kopuru hori ez gastatu. Udala telefonoen kontratuak begiratzeko ari da, eta baliteke heldu den urterako 15.000€ gutiago gastatzea telefono gastuetan (eskola, kontsultorio...)

**LORE JOKOAK:** 1851.urtean, Anton Abbadiak Urruñan hasitako Lore Jokoak 1879.urtean ospatu ziren lehen aldiz Hego Euskal Herrian; Elizondon hain zuzen ere. Garai hura oroitarazteko, apirilaren 21ean Iruritan egun guztiko besta antolatu dute Baztandarren Biltzarrak, Dorrea Elkarteak eta Baztango Kultura Batzordeak. Besta horren barnean, Baztandarren Biltzarrak 50 urte egiten dituela aprobetxaturik, literatur lehiaketa antolatu dute. Eskoletan horren berri emateko eskatu da, nahiz eta jakin Herrietako eskolek ez dutela literatur lehiaketetan parte hartzen, gaia beren klaustroan aipatuko dute.

**EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN:** Eskoletarat "Euskal Artzainak Ameriketara" panelak eraman nahi izanez gero, Laura Igantzi Elkarteko lehendakariarekin harremanetan paratzeko aukera dago. Panelak ez ezik, Ameriketara ibilitako artzainak ere eskoletarat joateko aukera dago.

**GURASO ESKOLA:** Guraso Eskola martxan dagoela jakinarazi du Maitek. Hortaz, ikastetxeetan kezka bat baldin bada, tailerren bat antolatu nahi bada, proposamenak egin... gizarte zerbitzuetako langileekin harremanetan paratzea bertzerik ez du. Horrekin loturik, Iruritan apirilaren 9,16 eta 24an, eta Erratzun urriaren 22,29 eta azaroaren 5ean, zerbait antolatu nahi da.

Bertzalde, orain dela hilabete batzuk familia

*impulsar la colaboración entre la escuela de Elizondo y el instituto de Lekaroz. Además, el Ayuntamiento está trabajando con las personas inmigrantes de cara a elaborar un proyecto, para acercarlas al mundo del euskera.*

**APUESTA ENERGÉTICA:** *El año pasado, todas las escuelas de Baztan participaron en la apuesta energética propuesta por CRANA. En dicha apuesta, la ikastola Baztan y la escuela de Elizondo han recibido una mención especial.*

**GASTOS DE GASOIL EN LAS ESCUELAS:** *A modo de información, a todas las escuelas se remitió lo que cada una había gastado en 2011n en litros de gasoil así como la factura telefónica.*

*Viendo que el importe de la factura de las escuelas infantiles es grande, Maite ha dado explicaciones para evitar malentendidos. En las Escuela Infantiles tienen una tarifa base de 80 €, aunque no gasten dicha cantidad. El Ayuntamiento está revisando los contratos telefónicos y es probable que para el año que viene se gasten 15.000€ menos en gastos telefónicos (escuela, consultorio...)*

**JUEGOS FLORALES:** *Se trata de una iniciativa creada en 1851 en Urruñia por Anton Abbadia, y en 1879 se celebraron por primera vez en Euskal Herria Sur; en concreto, en Elizondo. A modo de recuerdo de aquella época, el día 21 de abril, en Irurita, se ha preparado una celebración a lo largo de toda la jornada por parte de Baztandarren Biltzarra, Dorrea Elkarteak y Comisión de Cultura de Baztan. Aprovechando que Baztandarren Biltzarra cumple 50 años, dentro de dicha jornada se ha organizado un certamen literario. Se ha pedido que se informe de todo ello en las escuelas, a pesar de saber que las escuelas unitarias no participan en el certamen literario. Comentarán el tema en los respectivos claustros.*

**PASTORES VASCOS EN AMÉRICA:** *Si se desea llevar a las escuelas los paneles "Euskal Artzainak Ameriketara", hay que ponerse en contacto con la presidenta de la*

guztiek galdetegi bat pasatu zitzaien. Galdetegi horietatik atera den ondorioetako bat da familiek legedia eta ikastetxeen funtzionamenduaren berri izan nahiko luketela.

Lekarozko Institutuan kezka sortu zen elikagaien inguruan. Gizarte zerbitzuetatik aukera bada osasunaren inguruan proiektu bat gauzatzeko.

**MATERIALERAKO SOSA:** 1.200€ daude eskoletan banatzeko, materiala erosi ahal izateko. Erabili den irizpidea gela kopurua izan da; Elizondoko Eskolak 30 gela ditu, eta Herrietako eskolak bertze 30; hortaz, dirua erdibana egin da. Dena den, bertze irizpide batzuk erabiltzen ahal dira, eta proportzio hori aldatu. Horretarako lan talde bat sortzeko proposamena egin du Maitek.

#### **LAN TALDEAK SORTZEAREN PROPOSAMENA:**

- 1.- Dirua banatzeko irizpideak finkatzeko. Lan talde honek hasmenta eta akabaila izanen luke, irizpideak finkatzean bukatuko bailitzateke.
- 2.- *Kalera oinez* balorazioa. Balorazioak irakurri eta ondorioak ateratzeko bertze lan talde baten proposamena.

Lan taldeak sortzeko data: otsailaren akabaila.

**AURREMATRIKULAZIO KANPAINA:** Udalak 3 urtekoen izenak ematen ditu etxeetarat gutunak igortzeko, baina helbideak ez, datuen babeserako legeak ez baitu hori baimentzen. 3 urteko haur horietarik, bi/hiru familia zein diren ez dakite gizarte zerbitzuetakoek. *Bidelagunekin* harremanetan paratu dira eta haiek ere ez dakite nor diren.

Familia horiei euskararen garrantzia azpimarratu nahi zaie, alor horretan lan egin, hemen integratzeko.

**IKASTOLAKO LAN POLTSA:** Haur Hezkuntzarako lanpostu bat atera da, eta Lehen Hezkuntzako bertze lanpostu bat

*Asociación, Laura Igantzi. Además de los paneles, existe la posibilidad de que diversos pastores que han estado en América acudan a la escuela.*

**ESCUELA DE PADRES/MADRES:** *Maite ha dado a conocer que está en marcha la Escuela de Padres/Madres. Por lo tanto, si existe alguna preocupación en los centros, si se quiere organizar algún taller o hacer propuestas... hay que ponerse en contacto con el personal de los Servicios Sociales. En relación a ello, se quiere organizar algo en Irurita los días 9,16 y 24 de abril, y en Erratzu los días 22 y 29 de octubre, y el 5 de noviembre.*

*Por otro lado, hace varios meses se remitió un formulario a todas las familias. Una de las conclusiones que se han obtenido de dicho formulario es que las familias desearían conocer tanto la legislación que existe al respecto como el funcionamiento de los centros.*

*Se suscitó una preocupación en torno a los alimentos en el Instituto de Lekaroz. Existen una oportunidad de llevar a cabo un proyecto en torno a la salud desde los Servicios Sociales.*

**DINERO PARA MATERIAL:** *Existe una cantidad de 1.200€ para repartir entre las escuelas, de cara a poder comprar material. El criterio empleado es el número de aulas. La escuela de Elizondo dispone de 30 aulas, y las escuelas unitarias otras 30. Por lo tanto, se ha dividido por la mitad. De cualquier forma, se pueden emplear otros criterios y cambiar dicha proporción. Maite ha propuesto la creación de un grupo de trabajo para que estudie el asunto.*

#### **PROPUESTA PARA LA CREACIÓN DE GRUPOS DE TRABAJO:**

1.- *De cara al establecimiento de criterios de reparto del dinero. Se trata de un grupo de trabajo que tendría su inicio y su final; es decir, acabaría su cometido al establecer los criterios.*

ingelesarekin. 58 pertsona aurkeztu dira HHrako eta 12 LHko ingeleserako.

**MUSIKA ESKOLA:** Heldu den urtera begira gitarrako klaseak eskaini nahi dira, baina kontuan hartuz Nafarroako Gobernuak %20 gutiago emanen duela diru-laguntzetan, zerbait pentsatu beharko dela aipatu du Maitek. Bilkura ireki bat egin nahi da Musika Eskolako gurasoekin, Musika Eskolako aurrekontuak zertan diren jakiteko (2011ko gastua 181.582 €-koa izan zen; 2012an, 125.700 €-ra murriztu da. Gaur-gaurkoz, musika eskolaren defizita 78.072€-koa da), proposamenak egiteko...

Gitarra irakaslea kontratatzeak 21.000€-ko gastua izanen duela aurreikusten da.

**SEGURUA:** Udal eraikinen seguruak aldatu ditu Udaletxeak; hemendik goiti kobertura handiagoa izanen du: "bandalismoa" ere sartuko da. Hortaz, eskoletan horrelako zerbait gertatzen bada, Udaletxerat etorri.

**ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI:** Orain artio Caja Navarra zena Fundación CAN bihurtu da. Horrek aldaketa batzuk ekarri ditu "zuk aukeratu, zuk erabaki" ekimenera. Baldintzetako bat 250 onuradun dituen elkarte izatea da, orain artio ez bezala. Hortaz, orain artio Guraso Elkarteek parte hartzen ahal bazuten, gisa hontara talde anitz elkartu beharko dira, eta horietarik bat izanen litzateke promotorea.

Proiektua aurkezteko azken eguna martxoaren 31 da.

**ELIZONDOKO ESKOLAKO GARBIKETA:** ikasturte honetan bukatuko da. Plegua Elizondoko eskolarat igorri da, proposamenak baldin badaude igortzeko.

**GORTINAK EGITEKO TAILERRA:** Aitzineko Hezkuntza Batzorde batean aipatu zen negu aldera gizarte zerbitzuetako langileek tailer gisako bat egiten ahal zutela eskoletako gortinak egiteko. Sei joste-makina daudela jakinik, Gizarte Zerbitzuetatik bideratuko da eta formakuntza eskainiko zaie 16-17 urteko

*2.- Valoración de la campaña Kalera oinez: propuesta para la creación de otro grupo de trabajo para leer las valoraciones y sacar conclusiones.*

*Fecha para la creación de los grupos de trabajo: final de febrero.*

**CAMPAÑA DE PREMATRICULACIÓN:** *El Ayuntamiento facilita los nombres de los niños y niñas de 3 años, para enviar cartas a los domicilios. Pero no facilita la dirección, al no permitirlo la Ley de Protección de Datos. De los niños y niñas de 3 años, en Servicios Sociales no conocen a 2 o 3 familias. Se han puesto en contacto con Bidelagun, y tampoco saben quiénes son. Se quiere trabajar con dichas familias, para subrayar la importancia del euskera a la hora de su integración.*

**BOLSA DE TRABAJO DE LA IKASTOLA:** *Han salido una plaza de Educación Infantil y una plaza de Primaria con inglés. Se han presentado 58 personas para Educación Infantil, y 12 para Primaria con inglés.*

**ESCUELA DE MÚSICA:** *De cara al próximo curso, se desea ofrecer clases de guitarra, pero teniendo en cuenta que el Gobierno de Navarra dará un 20% menos en subvenciones, Maite ha comentado que habrá que pensar algo. Se quiere llevar a cabo una reunión abierta con los padres y madres de la Escuela de Música, para conocer el estado de los presupuestos de la misma, para hacer propuestas... (el gasto de 2011 fue 181.582 €; en 2012, se ha recortado a 125.700€. De momento el déficit de la Escuela de Música es de 78.072€),*

*Se prevé que la contratación del profesor de guitarra tenga un gasto de 21.000€.*

**SEGURO:** *El Ayuntamiento ha cambiado los seguros de los edificios municipales, y a partir de ahora tendrá una mayor cobertura: se ha introducido el concepto "vandalismo". Por lo tanto, caso de suceder algo semejante, hay que acudir al Ayuntamiento.*

**TÚ ELIGES, TÚ DECIDES:** *Lo que era*

gaztetxoei.

**ESKOLETAKO JANTOKIAK:** Jantokia duten ikastetxeetan bertako produktuak kontsumitzeko proposamena helarazi da, “bertan bizi, bertakoa kontsumitu” ideia garatzeko, lehen sektorearen alde lan egin ahal izate aldera. Interesa izanez gero, Maiteri erran eta bilkura bat antolatuko dute (Amaiur, Erratzu, Arizkun, Irurita dira jantokiak dituzten eskolak)

**PRENTSA OHARRA:** Murrizketek Baztango ikastetxeetan zer ondorio izan dituzten jakiteko, eskola bakoitzak oharra igorri zuen. Guztiak bateratzean, idazkia prestatu eta guztiei igorriko zaie.

#### **GALDE ESKEAK:**

Maite Ariztegik galdetu du zaborren tasen gain, faktura handia ailegatu baitzaie. Zaborren Batzordea Mikel Ortegaren esku dagoenez, bera paratuko da harremanetan Maiterekin.

Hurrengo Hezkuntza Batzordea Apirilaren 16an 18:30ean
---

*hasta ahora Caja Navarra se ha convertido en Fundación CAN y ello ha traído consigo algunos cambios al proyecto “tú eliges, tú decides”. Una de las nuevas condiciones es que se trate de una asociación compuesta por 250 beneficiarios. Por consiguiente, si hasta ahora las Apymas podían participar, se tendrán que juntar muchos grupos, y uno de ellos sería el promotor.*

*El 31 de marzo es el último día para la presentación del proyecto.*

**LIMPIEZA DE LA ESCUELA DE ELIZONDO:** *Finalizará este curso. Se ha enviado el pliego a la escuela de Elizondo, por si hay propuestas para remitirlas.*

**TALLER DE CONFECCIÓN DE CORTINAS:** *En una anterior Comisión de Educación se comentó que en invierno el personal de los Servicios Sociales podía llevar a cabo una especie de taller para confeccionar las cortinas de las escuelas. Sabiendo que se disponen de seis máquinas de coser, se tramitará desde los Servicios Sociales, para ofrecer formación a jóvenes de 16-17 años.*

**COMEDORES ESCOLARES:** *Se ha remitido una propuesta para consumir productos locales en los centros que disponen de comedor, para desarrollar la idea “bertan bizi, bertakoa kontsumitu”, de cara a poder trabajar a favor del primer sector. Caso de estar interesados, hay que decírselo a Maite y organizará una reunión (Existe comedor en las escuelas de Amaiur, Erratzu, Arizkun e Irurita)*

**NOTA DE PRENSA:** *Cada escuela envió una nota para dar a conocer las consecuencias que los recortes han ocasionado en los centros de enseñanza de Baztan. Cuando se unifiquen todas, se preparará un escrito y se enviará a todos los centros.*

#### **RUEGOS Y PREGUNTAS:**

*Maite Ariztegi ha preguntado sobre las tasas de basuras, dado que les ha llegado una factura con un gran importe. La Comisión de*

*Basuras está en manos de Mikel Ortega, y él se pondrá en contacto con Maite.*

*Siguiente Comisión de Educación  
16 de abril  
18:30*